


# KOOPHEZI-L:

Pertsona  
kooperatiboaren  
profila langileetan  
neurtzeko eskala







Mondragon Unibertsitateak argitaratuta  
2020ko maiatza  
ISBN: 978-84-09-19092-8  
Lege Gordailua: D 00399-2020  
Diseinua: Cuchillo  
Inpresioa: Gertu

  
**Mondragon  
Unibertsitatea**  
Humanitate eta Hezkuntza  
Zientzien Fakultatea



**Gipuzkoako  
Foru Aldundia**  
Gizarte Politikako  
Departamentua

  
Gizabidea Fundazioa

 **ULMA**

# KOOPHEZI-L: PERTSONA KOOPERATIBOAREN PROFILA LANGILEETAN NEURTZEKO ESKALA

## Egileak:

**Ion Lezeta**, Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea. *LANKI Kooperatibismoaren Ikertegia.*

**Aitor Aritzeta**, Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU/UPV) Psikologia Fakultatea. *Oinarrizko Prozesu Psikologikoen Saila.*

**Oxel Azkarate-Iturbe**, Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea. *Berrikuntza eta Eskuhartzea Hezkuntza Inklusiboan ikerketa lerroa.*

**Jose Ramon Vitoria**, Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea. *Berrikuntza eta Eskuhartzea Hezkuntza Inklusiboan ikerketa lerroa.*



*Bihotzez eskerrak eman nahi dizkiogu Gipuzkoako Foru Aldundiari tresna hau sortzeko eman digun laguntzarengatik. Eskerrak ere Gizabidea Fundazioari eta ULMA Fundazioari proiektu honi emandako laguntzarengatik eta babesarengatik.*

*Halaber, eskerrak eman nahi dizkiegu probaren ezaugarri psikometrikoak aztertzeko ezinbestekoak ziren aplikazioak egiteko ateak ireki dizkiguten enpresa zein erakunde eta tresna honi arduraz erantzun dioten langile guztiei.*





Kooperatibismoa elkarrekin  
denontzat egitea da:  
elkarlan eskuzabala; era  
indibidual zein kolektiboan  
kontziente izatea, azken  
finean, garena (er)aldatzeko  
elkarrekin guztiontzat  
eraikitzen, eta garatzen  
duguna garela.



# AURKIBIDEA

## **LEHENENGO ZATIA: MARKO INTERPRETATIBOA**

Eskerrak	07
1. Sarrera	13
1.1. Pertsona Kooperatiboaren beharra	
2. Pertsona Kooperatiboaren Definizioa	14
2.1. Pertsona Kooperatiboa osatzen duten ezaugarriak	

## **BIGARREN ZATIA: GALDERA-SORTAREN GARAPENA ETA JUSTIFIKAZIO ESTADISTIKOA**

3. Fitxa teknikoa	28
4. Azalpena	29
4.1. Pertsona kooperatiboa	30
5. Aplikazio arauak	32
6. Zuzenketa eta puntuazio arauak	33
7. Justifikazio estatistikoa	34
7.1. Sarrera	34
7.2. Parte-hartzailea	35
7.3. Fidagarritasuna	35
7.4. Baliotasuna	36
8. Interpretazio arauak	40
9. Baremazioa	40
10. Erreferentzia bibliografikoak	46
Eranskina I: Koophezi-L Galderasorta	52

# LEHENENGO ZATIA

## MARKO

## INTERPRETATIBOA

1. Sarrera

1.1. Pertsona kooperatiboaren beharra

2. Pertsona kooperatiboaren definizioa

2.1. Pertsona Kooperatiboa osatzen duten ezaugarriak

# 1. SARRERA

2017-2018. Ikasturtean Gipuzkoako Foru Aldundiaren “Gipuzkoan pertsona eta enpresa partehartzaileak sustatzeko programa”-ren laguntzaren bitartez, KOOPHEZI-i: Pertsona Kooperatiboaren Profila Gazteetan (16-22 urte bitartekoak) neurtzeko Eskala eraiki genuen. Proiektu honen iparra pertsona kooperatiboa identifikatzea eta garatzea izanik, eta 2018-2019 ikasturtean ipar berberari jarraituz, Erakundeek eta enpresek dituzten erronkei eta gizarte erronkei erantzuteko, Langilerian kompetentzia espezifikokoak neurtzeko tresna psikometriko bat eraiki dugu.

Ezagutzaren gizartean, garapen ekonomikoa gero eta gehiago dago ezagutzaren eta jakintza berrien eskuratzearen menpe. Testuinguru honetan, kapital ukiezinen garrantzia gero eta estrategikoagoa ari da bilakatzen. Teknologia berrien potentzialtasunari bide emateko gai diren langile trebeak behar dira. Ekoizpen-prozesuan erabakigarria bihurtu da giza adimenari tokia egitea. Adimena adiera zabal batetik ulertua, gaitasun kognitiboak baino askoz gehiago biltzen ditu: emozioak, motibazioa eta borondatea. Jarduera profesionala aurrera eramateko, giza nortasunaren alderdi guztiak behar dira. Azken finean langileriari nork bere burua etengabe birmoldatzeko prestutasuna eta enpresaren helburuekin identifikatzea eta erantzukizunez jokatzea eskatzen zaio.

Ezagutzaren gizartean, prestakuntza eta ahalik eta kompetentzia maila altuen duten pertsonak heztea izango dira etorkizuneko bermeak. Langile kualifikatua da balioa sortzeko iturririk zuzena. Langile autonomoa baina baita ere besteekin ezagutzak konpartitzeko eta elkarrekin eraikitzeko kapazitatea duena eta proiektu amankomun batekin bat egiten dakien langilea. Ezagutzan oinarritutako balio erantsiaren ekoizpenaren paradigman, bitarteko nagusia gizakia bera da, bere gaitasun guztiekin. Paradigma honen barnean aurkitzen diren enpresa partehartzaileak herritar orok behar lituzkeen giza gaitasunak sustatu beharko ditu: parte-hartzea, ekimena, talde lana, sormena, autoestimua, arrazoitzeko gaitasuna, interdependentzia, erantzukizuna, balore sozialak... Ezaugarria guzti hauek batzen dituen langileriaren profila bat garatzea xede izan du proiektu honek. Profil horri Langileriaren Profil Kooperatiboa deitu diogu.

# 1.1 PERTSONA KOOPERATIBOAREN BEHARRA

Herri erresilientzia komunitario baten begiradatik eta justiziazko giza garapen iraunkorraren begiradatik XXI. mendeko gizartearen erronkak erraldoiak dira; besteak beste, lan duinaren dilema jakintzaren gizarte saretuan: robotizazioa, digitalazioa eta automatizazioa. Energiaren dilema: trantsizio sozio-ekologikoa, des-karbonizazioa eta horretarako gakoak, berriztagarriak. Zahartzaro duinaren eta zaintzaren dilema: lanpostu feminizatuen paradigma gainditzeko. Elikadura sostengarrien garrantzia; produktu lokalak, sare lokalak, eko-sistema autoeratuak. Enpresa erakundeen -publiko, kooperatibo zein pribatuaren-kulturaren bir-formulazioa: zeharkakoak diren gaitasunen sustatzea; talentuaz harago doazen adimen emozionala, etika eta jarrera, pertsonen etengabeko hezkuntza garapenari hertsiki lotuak.

Garrantzitsua da gizartean dauden etengabeko aldaketen aurrean, XXI. mendeko erronkak kontuan izanda, zer izan nahi dugun jakitea. Eta, era berean, argi izan behar da zer egin behar dugun izan nahi duguna izateko. Erabakitzea komunitate bezala zer nahi dugun, eta helburu adostuak eta partekatuak eraiki, inter-kooperazioa (Retegui, 2000) eta aliantzak, saretzeak, ahalbideratuko dutenak.

Arrasateko esperientzia kooperatiboaren inspiratzaileak eta fundatzaileak esan zuen bezala (Azurmendi, 1999:69): “Garapena ez da gehiago lortzea, baizik eta gehiago izatea, zuzenago jokatzeko eta nork bere burua gehiago ematea”. Arizmendiarretaren ustez (Altuna, 2008:73): “printzipio ekonomikoa giza helburuak lortzeko irizpide instrumentala baino ez da. Ekonomiak mendekotasun harremana du etikari buruz, gizakiaren zerbitzura dagoen tresna baita, eta ez alderantziz”. Gasteizko seminarioan Arizmendiarrietaren irakasle izandakoak, R. de Yurrek (1976), ikuspegi filosofiko batetik aztertzen du lanak pertsonaren garapenean duen eragina eta azpimarra egiten du Marxek Hegeli egiten dion kritikan: Hegelek ez du kontuan hartzen lanaren alde txarrak pertsona suntsitzen duela garatu beharrean. Beraz, pertsonaren garapenerako lanaren alde txarrak saihesten diren testuinguruak sortu behar dira, garapenerako eta kooperaziorako eremuak.

Horregatik, ulertzen dugu XXI. mendeko gizarte erronkei erantzuteko pertsona kooperatiboaren -PK hemendik aurrera- beharra dagoela; beharrezkoa dela komunitateko eremu desberdinetan PKren profilarren lanketarako testuingurua elikatzea. XXI. Mendeko komunitateek herritar kooperatiboak gero eta beharrezkoago dituzte, orain arteko indibidualismo egoista eta akumulazioa material propioan oinarritzen den sistema badirudi ez dela erronka horiei guztiei erantzuteko gai izan. Gizarte inklusibo, demokratiko, sostengarri, berdinkide eta justua eraikitzeko bidean lehen zoru-etikoa PKren sustapenean

dago. Horretarako hainbat pista gure eko-sistema kooperatiboak bere oinarri-oinarrian ditu. Laburbilduz, XXI. mendeko gizarteak XXI. mendeko herritarrak behar ditu.

Zentzu honetan, Harvard Innovation Lab-eko Tony Wagner-ek dio (Torre, 2009; Wagner, 2012) bateratu egin direla XXI. mendeko pertsonen ikasteko, lanerako zein hiritar izateko behar dituzten gaitasunak. Beharrezkoak ikusten dira gaitasun horien artean, alde batetik, modu kritikoan pentsatuko duten pertsonak izatea: galdera oso onak egiten dakizkitenak; beste aldetik, garrantzitsua da laguntzeko edo kooperatzeko ahalmena edukitzea; era berean, aipatzen da komunikaziorako ahalmen ona beharrezkoa dela: ahozkoa, idatzizkoa eta entzuten jakitekoa; azkenik, azpimarra egiten da beharrezkoa dela arazo-egoerak modu sortzailean ebazteko ahalmena izatea. Eta gaitasun hauekin guztiekin lotzen dira ezaugarri desberdinak: enpatia, konstantzia, irmotasuna, ekintzailetasuna, auto-efikazia eta bizitza moralaren ikuspegi indartsua.

Horrela, KOOPHEZI-L PKren profila langileetan neurtzeko egitasmoa da zeinak, besteak beste, arestian aipatu ezaugarri horiek aztertuko dituen. Iragan mendeko amaieran W.T. Kelvinek zuen moduan definitzen ez dena ezin daiteke neurtu, neurtzen ez dena ezin daiteke hobetu, hobetzen ez dena maldan behera joaten da. Bidea, modu inter-kooperatiboan eta lankidetzan egiten gabiltza Mondragon Unibertsitateko fakultateen artean eta Euskal Herriko Unibertsitatearekin. D. Gaborrek zioen moduan etorkizuna iragartzeko modurik

Garai berriak aterabide  
berriak behar ditu eta zentzu  
horretan gaur egungo gizarte  
konplexurako maila berdineko  
pertsona gaituak eta prestatuak  
behar ditugu; beste alorretan  
bezala lehenik eta behin neurtu  
egin behar ditugu.

onena, etorkizuna eraikitzea dela sinetsita gabilta. Bide horretatik ekin diogu ikerketa motibagarri honi ere.

Garai berriak aterabide berriak behar ditu eta zentzu horretan gaur egungo gizarte konplexurako maila berdineko pertsona gaituak eta prestatuak behar ditugu; beste alorretan bezala lehenik eta behin neurtu egin behar ditugu. Garai post-global honetan bere buruaren jabe izan nahi duen eta auto-eraketan komunitarioan eta partekatuan esperientzia duen lurraldeak -jendarteak, eko-sistemak- posizio aurreratuan jartzen ditu Europako geometria aldakorreko lurralde-erregioen testuinguruan. Horretarako esku artean duzun esku liburua tresna sendoa bezain praktikoa izateko asmoz eraiki dugu: KOOPHEZI-L galdetegia.

Gizarte inklusibo, demokratiko,  
sostengarri, berdinkide eta  
justua eraikitzeko bidean  
lehen zoru-etikoa PKren  
sustapenean dago.



## 2. PERTSONA KOOPERATIBOAREN DEFINIZIOA

PK definitzerako orduan, literatura errebisatzeaz gain grounded theoryko oinarriak hartu ditugu kontuan. Nahiz eta, PK kontzeptu berria ez izan, ez dugu frogatutako teoriarik topatu literaturan. Horrela, kontzeptu honen inguruan egun dauden ikuspegi desberdinak aztertu ditugu.

Ikuspegi teorikotik Azurmendi ez dator bat darwinismo radikalarekin, bere aburuz emakume-gizona aberetxo erkina eta lagunkoia delako, ahula delako gizabere hauxe lagunzalea eta lagunbeharra du eta bat dator Darwinekin emaitza batean: gizakiak aberetik daukala bere morala (Azurmendi, 2016:37): “bera den aberetxoaren biziera komunitariotik, hankabiko ahul horrek ibili duen eboluzio biologiko eta sozialetik hain zuzen ere”.

Norabide berean Kropotkin-ek (1993) aipatzen du gizakiaren eboluzioan eta historian kooperazioa beti positiboa izan dela: animalien arteko elkarbizitza taldeka kontuan izanik, natura ez da inola ere indarkeria librearen erresuma izan. Bere ustez, kooperazioa naturala izan da, aurrerapena eta komunitatearen ongizatea besterik ez duelako eragiten; are gehiago, gizakiak horregatik egin duela aurrera argudiatzen du. Biziraupen horretan gainera komunitatearen elkar-eraginak berebiziko garrantzia izan duela dio.

Biologiaren ikuspuntutik ere bizitza bera ulertzeko kontzeptu giltzarrizkoa kooperazioa dela dio Nowak-ek (2006), ez elkar borroka. Geneek elkartu eta kooperatuz kromosomak biltzen dituzte. Kromosomak elkartu eta zelulak biltzen dituzte. Zelulen elkartasun eta kooperazioak organismoa osatzen dute. Organismoen elkartasunak komunitatea sortzen du, eta horietako unitate eta maila bakoitzak bere eboluzio moduak dauzka (Azurmendi, 2016:107): “Lekutan gaude guztien guztiekin borrokaren perspektibatik”. Franz de Waal-ek (2007) gure barruan daramagun txinpanzean -animali sozial kooperatiboan- argumentu antzekoak defendatzen ditu; erlijioa baino zaharragoa dela gizakiaren morala ere azaltzen digu primatologiaren perspektibatik; alegia moralak gure animaltasun sozialean duela jatorria. Norabide honetan, PKren aurka doazen balio eta jokabideak identifikatu ditu egungo gizartearen irakurketatik R. Sennett-ek (2012). Sennettentzat bi dira lankidetzaren suntsitzen duten aldagaiak: desberdintasun soziala eta lan egiteko modu berriak: epe laburreko, behin-behineko eta malgutasuna kontratuetan islatzen dena. Gizarte modernoan pertsona berri bat agertu zaigu; konpromiso soziala kudeatzen ez dakien eta ezkututzen den gizaki bakartia. Honek lankidetzarako gogoia galtzen du; ni ez-kooperatiboan bihurtzen da, R. Sennett (2012:105): “Lankidetzaren ez da ataza erraza, konplexua eta zaila da; bere etsai propioak ditu gainera. Lankidetzaren beste diren hori onartzeko erantzutea da, praktika du oinarria eta entzute aktiboa eskatzen digu, alegia empatia eskatzen digu; harremanetarako moduetan oreka galdu digu eta berreskuratzeko ordua da”.

Planck institutuan egindako ikerketen ostean, Stanfordeko Unibertsitatean eman zituen hitzaldietan argitu zuen gizakiok jatorrak izateko aurre-disposizioa daukagula; eta, ostean azaldu zuen zergatik kooperatzen dugun, 2010ean argitaratu zuen liburuan. Zehazki, hezkuntza prozesuetara bideratu zuen begirada eta bere kezka nagusia; azken honek daukan garrantzia azpimarratuta.

PKren inguruan egindako literatura errebisioaz gain, informazio bilketarako landuak izan dira elkarrizketak, barne-dokumentuen azterketak eta behaketak. Elkarrizketak egin zaizkie bi Ikastoletako zuzendariari -Arizmendi Ikastola eta San Fermin Ikastola- eta bi enpresa kooperatibatako -Orkli S. Coop eta Grupo ULMAko UHSko- pertsonaleko arduradun bati eta lehendakariari; barne-dokumentuak jaso dira unibertsitate mailakoak -Mondragon Unibertsitatea-, fakultate batekoak -Humanitate eta Hezkuntza Zientziak- eta ikerlerro bateko partaideek egindakoak -Lanki Ikertegia, HUHEZI-; eta behaketa bidez jaso dira datuak beste enpresa kooperatiba -Grupo ULMA- bateko barne prozesuan.

Elkarrizketak erdi-egituratuak izan dira (Domínguez, Muñoz & Rodríguez, 2003). Elkarrizketan jasotako datuak anonimoak eta konfidentzialak dira eta lanketa hobeagoa egiteko grabatuak eta transkribatuak izan dira.

Elkarrizketak, dokumentuen bilketak eta behaketak egin dira 2017ko iraila eta 2018ko urtarrila bitartean. Jasotako datuen analisi deskriptiboa taldean egin da; hau da, datuok aztertu, analizatu, eztabaidatu eta, ostean, ondorioak eraiki dira. Esan daiteke, nolabait, ikerlari desberdinon begirada eta kontrastearekin eraiki dela KOOPHEZI-L tresnaren bidez neurtu daitezkeen alderdien, dimentsioen eta adierazleen proposamen zerrenda. Landako lan hori burututa eta eduki analisiak eginda hauek dira aipatu diren definizioak PKri buruz:

Literaturaren arakatzea eta landa ikerketa burutu ostean definizio bateratu batetara iristea ez da lan erraza izan, baina nahiz eta kontzeptu honek konplexutasun maila altua izan, definizio bateratu bat proposatzen ausartuko gara, horrela:

«Pertsona Kooperatiboa da gizakia eta jendartea kontuan hartzen duten balio eta jarrera individualak eta komunitarioak dituen; burujabea, elkar-kidetzan diharduena eta ekintzaile soziala: elkartasunean eta berrikuntzan oinarritutako eraldaketa sozialaren alde pentsatzen duena eta egiten duena».

Definizioa eraiki ostean eta berau neurtzeko helburuarekin, ondoren KOOPHEZI-L galdera-sortaren baitan PK osatzen duten definizioak jasoko ditugu.

Gizarte modernoan pertsona  
berri bat agertu zaigu;  
konpromiso soziala kudeatzen ez  
dakien eta ezkutatzen den gizaki  
bakartia.

## DEFINIZIOAK

**1.** PK Balio eta jarrera kooperatiboak dituen da (lankidetzaz, partaidetzaz, erantzukizun soziala, berrikuntza -etengabeko berrikuntza-) bere komunitaterako eta handik kanporako praktikan islatzen ditu. Besteekin batera lanean dihardu; eta erronkak modu kolektiboan eta elkarkidetzan sinistuta ebatzen ditu; beti ere eraldaketa sozialaren norabidean. Ekintzaile soziala da; gizarte berritzailea.

Arizmendi Ikastola.

**2.** PK definitzen duten balioak bost dira: integritatea, konpromisoa, bezeroari fokaturatutako egotea, onura kolektiboan bilatzea eta etengabe hobetzeko nahia izatea. Balio hauek guztiak elkar lotuak daude.

Orkli S. Coop.

**3.** PK balio kooperatiboak ezagutzen dituen da eta modu horretan jokatzeko dakiena (kooperazioa, parte-hartzea, ardura soziala eta berrikuntza, berritze prozesu iraunkor gisa ulertuta). Egiteko era hauek praktikan jartzen duena da, bai bere komunitatean bai eta komunitatetik kanpo. Besteekin lan egiten duena da, eta arazoei eta erronkei modu kooperatiboan konponbideak bilatzen dakiena da, beti ere, eraldaketa sozialaren ikuspegitik.

Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien fakultatea. Barne dokumentuak.

**4.** PK "Arizmendiarritarra", justizia sozialean, berdintasunean eta komunitatearekin elkartzunean XXI. mendeko erronkei eraldaketa sozialen bidetik aterabideak ematen gaitua; buru-jabea, buru-askea eta norbanako kritikoa eta auto-erakitzailea esan nahi du; alegia, bere gizatasunaren ardatza komunitatearen baldintzak eraldatzeko eta duintzeko ekimena eta gaitasun moral eta etikoa duen gizarte berritzaile-ekintzaile-eragile-adimentsua eta herritar konpetentea -bere arloan jantzia- (Galletebeitia, 2017). Lau balio hauen jabe da, Lankidetzaz (elkar-lana eta autogestioa); Gizarte konpromisoa (gizarte autoeratuagoa); Erabakimena (parte hartze-kultura eta erabakimenerako ahaldundzia); Elkartzun ekonomiko eta soziala (ongizate indibiduala eta ongizate kolektiboan uztartu).

Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien fakultateko Lanki Ikertegia.

Barne dokumentuak.

**5.** PK definitzen duten balioak bost dira eta bere jokabideetan ikusi ahal dira: Ilusioa, elkartzuna, aldaketarako orientazioa, konfiantza eta konpromisoa. Balio hauek guztiak elkar lotuak daude. Grupo ULMA. Behaketak.

Grupo ULMA. Behaketak.

Literaturaren arakatzea eta landa ikerketa burutu ostean definizio bateratu batetara iristea ez da lan erraza izan, baina nahiz eta kontzeptu honek konplexutasun maila altua izan, definizio bateratu bat proposatzen ausartuko gara, horrela:

***Pertsona Kooperatiboa da gizakia eta jendartea kontuan hartzen duten balio eta jarrera indibidualak eta komunitarioak dituen; burujabea, elkar-kidetzan diharduena eta ekintzaila soziala: elkartasunean eta berrikuntzan oinarritutako eraldaketa sozialaren alde pentsatzen duena eta egiten duena***

Definizioa eraiki ostean eta berau neurtzeko helburuarekin, ondoren KOOPHEZI-L galdera-sortaren baitan PK osatzen duten definizioak jasoko ditugu.

## 2.1. PERTSONA KOOPERATIBOA OSATZEN DUTEN EZAUGARRIAK

PKren neurketa garatzeko eta dimentsioak aukeratzeko garaian jarreraren eta balioen teoriak hartu ditugu kontuan, ardatz modura. Horrela, Montané, Jariot eta Rodríguez-ek (2007), onartzen dute jarrerak jokabiderako aurre-disposizioak bezala ulertu behar direla. Pertsonak erantzun afektiboak, kognitiboak edota jokabidezkoak eman ditzakete eta hiru erantzun mota hauek, elkarloturik, jarrera bat eratzen dute.

Eagly eta Chaiken-ek (2007), berriz, aitortzen dute hiru dimentsio hauek ez direla jarreraren eraikitzaileak; baizik eta, pertsonok jokatzeko joerarekiko, tendentziarekiko, egiten dugun ebaluazioaren ondorio gisa jasotzen dituzte jarrerak: batzuetan bananduta eta besteetan elkarloturik agertzen direlarik. Horrela, onartzen da jarrera jokatzeko joera bat dela, zeina espresatzen den objektu baten aldeko edo kontrako ebaluazioan. Ebaluazio honetan eragina dute aspektu afektiboak, kognitiboak eta jokabidezkoak.

Hiru faktore hauen eragina desiratutako jokabidean azaltzen edota aurre-ikusten dute Olson eta Stone-ek (2005). Beraz, jarreraren emaitzak hobetuko dira gizabanakoaren informazioa, trebetasunak eta jokabide-ohiturak hobetzen badira, eta jokabide baten aldeko emozioak lantzen badira; eta, ondorioz, jokabidearen predikazioa ere hobetuko da (Montané et al., 2007).

Bestalde, psikologo sozialek aspaldian frogatua dute Balio Sozialetarako Orientazioaren

markoan -SVO, Social Value Orientation, ingelesez- pertsonak bat ez datozela beraien artean. Joera desberdinak aurkitu dira pertsonetan, norberaren edo besteen lehentasunen orientaziori dagokionean; eta egiaztatu egin da, joera ezberdin hauek, interdependentzia egoeretan kooperaziorako portaeran duten eragina ezberdina dela. Gaur egun, Balio Sozialetarako Orientazioa -BSO aurrerantzean- pertsonen bereizgarri bat bezala hartzen da (Messick & McClintock, 1968), eta identifikatua izan da lankidetzarako motibazio, estrategia eta portaera hautaketan determinatzaile garrantzitsu bezala (Kollock, 1998; McClintock & Van Avermaet, 1982).

BSO motibazio mailan desberdintasun indibiduala adierazten duen aldagaia izanik, dilema sozialeko testuinguruetan baliagarria da lankidetzaren iragarpenetarako. Ikerketa gehienetan bi orientazio kontrajarriak arakatu izan dira: joera pro-soziala eta norberengana orientatutako joera. Azken joera hau batzuetan beste bi azpi-ataletan banandua izan da: orientabide indibidualista eta lehiakorra (Smeesters et al., 2003). Dilema sozialeko egoera batean, indibidualistak, berarentzako diren emaitzak maximizatzen saiatuko dira bakarrik, hau da, norberen helburuak betetzea bilatuko dute soilik. Lehiakorrek, aldiz, beraien irabaziaz maximizatzen saiatuko dira beste batzuen irabaziekin alderatuta. Lehiakorrek, irabazi-galdu egoera moduan interpretatzen dituzte desadostasunak. Bi orientazio hauetatik aldenduz, pro-sozialek lankidetzan aritzeko joera naturala dute; norberentzako emaitzak maximizatzen saiatuko dira, banaketan berdintasuna artikulatzearekin batera (Van Lange et al., 2007). Era berean desadostasunak irabazi-irabazi egoerak bezala interpretatuko dituzte.

Dilema sozialeko egoeretan aktibatzen diren prozesu psikologikoen berri ematen dituzten hainbat ikerketa ditugu (Van Lange et al., 2013). Parte-hartzaileen nortasunaren desberdintasunei dagokionez, nartzisismoan maila baxua dutenen artean lankidetzaren portaerak handiagoak direla frogatzen dituzten emaitzak daude (Campbell, Bush, Brunell & Shelton, 2005), baita egoeraren menpeko bekaizkerian maila baxua dutenen artean ere (Parks, Rumble & Posey, 2002). Era berean, kooperazio portaerak handiagoak dira barruko orientazio altua dutenen artean (Sheldon & McGregor, 2000), auto-kontrolaren sentsazio

Bi orientazio hauetatik aldenduz,  
pro-sozialek lankidetzan aritzeko  
joera naturala dute; norberentzako  
emaitzak maximizatzen saiatuko  
dira, banaketan berdintasuna  
artikulatzearekin batera

altua duten pertsonen artean (Boone, Brabander & Van Witteloostuijn, 1999) eta taldeko kide izatearen behar altua dutenen artean (De Cremer & Leonardelli, 2003).

Azkenik, moraltasunaren eta kooperazioaren jokabideen arteko loturak lantzen dituzten ikerketak daude. De Bruin eta Van Lange-n (1999) ohartu ziren pro-sozialek eta norberarengana orientatutako pertsonen artean, moraltasuneko antzeko interpretazioak izanik ere, pro-sozial soilek euren portaerak interpretazio moral hauen arabera moldatzen zituztela. Pertsona pro-sozial eta norberaganako orientazioa duten artean, ezberdintasunak agertzen dira balioen lehentasunean (Garling, 1999; Joireman & Duell, 2005). Literatura zientifikoa BSO markoan aurkitzen ditugun kontzeptuen eta balioen inguruko beste lanketekin alderatzeko beharra dagoela ondorioztatzen da, adibide gisa alozentrismoa eta idiozentrismoarekin konparatu beharra (Bogaert et al., 2008) edo Schwartz-en balio pertsonalaren teoria (Xie et al, 2006) BSO-arekin elkarrizketan jarri beharra.

Ondoren deskribatzen diren dimentsioak jarreraren eta balioen oinarri teoriko hauek jarraituz izan dira hautatuak. Beraz, jarraian azaltzen diren dimentsioak dira analisi estatistikoak egin ostean, saturazio faktoriala egokia erakutsi dutenak eta PK neurtzeko erabiliko direnak.

## DIMENTSIOAK

**Autoefikazia:** 1977an Bandura-k "Auto-efikazia: egungo gizarte aldaketei nola aurre egiten diogun" argitaratu zuenetik, psikologian zeresan handia eman duen kontzeptua da auto-efikaziarena. Bandura-k dienez norberaren gaitasunekiko sinesmenean datza auto-efikaziak: auto-eraginkortasuna beharrezkoa denean ataza bat kudeatzeko, antolatze eta exekutatzeko. Beste era batera esanda, auto-efikazia norberak duen sinesmen gaitasuna da, pertsona jakin batek egoera jakin baten aurrean arrakasta izango duela sinestea. Bandura-k sinesmen horiek deskribatzen ditu pentsatzeko, jokatzeko eta sentitzeko moduaren ardatz gidatzaile gisa. Lau iturri nagusi ditu Bandura-rentzat auto-efikaziak: maisutasun esperientzia -diziplina bateko domeinua-, modelazio soziala -adibide eta erreferentzietatik ikastea-, pertsuasio soziala -besteekiko miresmena eta konfiantza- eta erantzun psikologikoa -ataza baten aurrean izan daitekeen erantzun psikologikoa-. Auto-efikaziaren itxaropenak eragin zuzena izan dezake pertsona baten sentimendu, pentsamendu eta ekintzetan. Itxaropen gutxiko pertsonak auto-estimatu gutxi izateko joera izaten dute oro har, eta beraien gaitasunekiko sentimendu negatiboak izaten dituzte. Pentsamenduari dagokionez, auto-efikaziaren itxaropen altuak pentsamendua errazten du; eta pentsamendu hauek ekintzaren bide-lagun bihurtu ditzake. Azkenik, auto-efikazia sentimendu altua duten pertsonak arrisku handiagoa eskatzen duten atazak burutzen dituzte; langa altuagoa jartzen diete euren buruari eta ekintza propioetan jarraikortasun handiagoa dute.

**Beharrizan kognitiboa:** Beharrizan kognitiboa erakusten duten pertsonak inguruan duten informazioa modu aktiboan bilatzen, antolatzen eta egituratzen dute, eta estimulu berrien bila dabilen pertsonetan ematen da. Beharrizan kognitiboaren -need for cognition- kontzeptualizazioa 1950ko hamarkadatik dator. Garai hartan egoerak modu esanguratsuan antolatu eta egituratzeko behartzat definitu zen (Cohen, Stotland & Wolfe, 1955). Ostean, 80ko hamarkadatik eta gaur egundaino, bere kontzeptualizazio modernoa, berriz, konplexutasunezko erronkak dituzten atazak burutzeko barne-motibazio aldakortzat definitzen da (Cacioppo & Petty, 1982; Cacioppo et al., 1996; Fleischhauer et al., 2010). Zentzu honetan, hainbat ikerketek frogatu dute beharrizan kognitiboa baliagarria izan daitekeela psikologia aplikatuaren alor desberdinetako banakako desberdintasunak azaltzeko (Elias & Loomis, 2002; Smith, Kerr, Markus & Stasson, 2001; Sojka & Deeter-Schmelz, 2008). Europar Batasuneko Hezkuntza Batzordeak beste guztien gaineko eragin handia duen oinarritzko gaitasun bezala definitzen du "ikasten ikastea" kompetentzia. "Norberaren ikaskuntza prozesua jarraitzeko, egituratzeko eta antolatzeko gaitasuna, denbora eta informazioaren kontrol eraginkorra dakar, bakarka zein taldeetan". Beharrizan kognitibo altua duten pertsonak "ikasten ikastea" kompetentziarako apriorizko baldintza hobeak dituzte kompetentzia horren asimilaziorako eta LifeLong-Learning horretan posizio pro-aktibo hobeak dute. Ez hori bakarrik, berriki, Wu, C. H., Parker, S. K. eta De Jong, J. P.-ek (2014) beraien ikerketan beharrizan kognitiboa jokabide berritzailea duen pertsonaren apriorizko joera dela ere erakutsi dute.

**Moral barneratua:** Laguntza behar duen pertsona baten aurrean -dela arazo bat, dela beharrizan konkretu bat- zer nolako erantzuna ematen den eta horrekiko zein arrazoiketa egiten den aztertzen du dimentsio honek. Ikuspegi moral batetik, printzipio pertsonaletatik auto-bideratzen diren pertsonak, berdintasun, erantzukizun eta ondorioen aurre-ikuspenetik abiatzen direnak, ekintza baten ondorio afektibo positibo/negatiboak aurre-ikusteko gai direnak dira moral barneratua dutenak (Carlo, Eisenberg & Knight, 1992; Mestre, Pérez, Samper & Frías, 1999).

**Enpatia Kognitiboa:** Historian zehar sortu izan dira enpatiaren inguruko hainbat definizio. Kölher da (Davis, 1996) enpatiaren ikuspuntu kognitiboaren azterketaren ikertzaile aitzindarietako bat. Enpatiaren atal kognitiboak inplikatzeko du besteak zer pentsatzen eta sentitzen duen ulertzea eta antzematea. Autoreen gehiengoak enpatiaren ikuspuntu kognitiboan kokatzen dira kontsideratuz, funtsean, bestearen perspektiba kognitibo hartzean oinarritzen dela -cognitive role-taking-. (Fernández-Pinto, López-Pérez, & Márquez, 2008).

Enpatiak, helduen kompetentzien ezaugarri modura, ikerketa ugarien arreta jaso du (Mikulic, Crespi, & Radusky, 2015; Pérez-Escoda, Filella, Alegre, & Bisquerra, 2012). Ikerketa ezberdinetan demostratu izan da, enpatia moduko kompetentziak era positiboan erlazionatzen direla erlazio interpersonalekin, horrela, kompetentzia sozialen parte kontsideratuz (Bisquerra & Pérez Escoda, 2007).

**Helburuen Interdependentzia:** Interdependentziak lan ekipoen ezaugarri bezala ikerketa ugarien arreta jaso du (Stewart & Barrick, 2000). Interdependentzia mota ugari aztertu izan badira ere, helburuen interdependentzia garrantzitsuenetarikoa izan da eta korrelazio

positiboak erakutsi ditu ikaskuntza prozesuarekin, informazio partekatuaren kopuruarekin eta taldearen eraginkortasunarekin (De Dreu, 2007). Gainera, interdependentzia ere, kongruentziaren hipotesiaren baitan, erantzun afektibo positiboekin eta berrikuntza jokabideekin lotua izan da (Van der Vegt, Emans & Van der Vliert, 2005).

Kontuan izanik PKren definizioan eragile sozial desberdinak esandakoa -PKren ezaugarrietako bat dela Talde-lanean aritzekoa: ...interdependentzia eta lankidetzaren eta ikuspegi teoriko desberdinetatik kooperazioaren definizioan elkar-laguntza edota elkar-beharrari eman zaion garrantzia ikusita (Azurmendi, 1984); garrantzitsua egiten da pertsonen helburuen interdependenziaren kontzientzia neurtzea. Alde batetik, bat egiten duelako PKren profilaren definizioarekin eta, bestetik, ezaugarri honetan emaitza altuak erakustea onuragarria izan daitekeelako lan efektiborako eta jarrera kooperatiboak sustatzeko.

**Komunikazio Asertiboa:** Era egokian kontrakotasuna, desadostasuna, kritikak egiteko eta jasotzeko, eskubideak defendatu eta orokorrean sentimendu negatiboak adieraztea ahalbideratzen duen portaera modura ulertzen da komunikazio asertiboa (Riso, 1988). Jakina da erakundeetan elkarbizitzak, ezinbestean, berdinen arteko gatazka interpersoneletara eramaten gaituela. Hau horrela izanda, lantokian PKk bere lankideekin duen erlazionatzeko era ezagutzen lagunduko duen dimentsio bat izango da. Hau da, pertsona zein puntutaraino gatazkak era asertiboan konpontzeko gai den neurtzera bideratutako dimentsio bati buruz ari gara.

Komunikazio asertiboak hauxe azaltzen du: nahiz eta taldekideak norberaren ideiekin bat ez etorri, lankideak berak, pentsatzen duenarekin zintzotasunez jokatzeko duen edo ez neurtzen du, kontutan izanik bere iritzia egoera ezberdinetan transmititzeko daukan gaitasuna eta erraztasuna.

**Ekintzailetasun Soziala:** Ekintzailetasun soziala terminoa nahiko berria da eremu zientifikoan. Erreferentzia aitzindaritako bat The rise of social entrepreneur liburuan aurkitzen dugu (Leadbeater, 1997). Arrez geroztik hainbat autore izan dira ekintzailetzea sozialaren kontzeptua definitzen, aberasten eta zehazten joan direnak. Mintzberg-ek gizartearen sektore "Plurala"-ren garrantzia goraipatzen du ekintzailetzea sozialaren ikuspegi komunitario batetik, gizartearen auto-eraketa gaitasuna alegia guztien onerako jomugatzat izanda. Alfonso Vazquez-ek Mintzberg-en proposamenaren inguruan hausnarketa egiten du, guztiona den erakuntza bidea ezberdinen arteko lankidetzan eta elkartasunean adierazten dela goraipatuz.

Dimentsio komunitarioa ere ikuspegi kooperatibo batetik oso gertu egon daiteke (Clamp, et al., 2010). Neurri handi batean, ekonomia sozialeko eta konkretuki kooperatibagintzaren balio eta praktikak oso lotuak egon daitezke ekintzailetzea sozialarekin. Horrela, komunitatearekin lokarri handia duten kooperatibetan, ekintzaile kooperatiboak ekintzaile sozialarekin alderatu daitezke. Ekintzaile sozialak edo gizabidetsuak (Henton et al., 1997) komunitatea laguntzen dute elkarren arteko kolaborazioen bitartez sektore publikoa, pribatua eta herritarren artean erlazio produktiboak eta erresilienteak sortze aldera. Autore hauek, ekintzaile sozialen artean bost ezaugarri bereizten dituzte: a) ekonomia berrian aukerak ikusten dituzte, b) ekintzailetzarako nortasuna dute, c) lidergo kolaboratiboa eskaintzen dute ekonomia eta komunitatearen artean loturak sortze aldera, d) epe luzeko



interesengatik motibatuak daude eta e) taldean lan egiten dute, rol osagarriak jokatu.

**Justizia Soziala eta Onginahia:** Schwartz-en balioen teoria aurkitzen dugu balioen ikerketa eremuan dauden eredurik ezagunen artean. Teoria honek oinarritzko hamar balio mota ezberdinen unibertsaltasuna eta mailakatzea planteatzen ditu norbanakoen mailan (Schwartz & Bilsky, 1990). Balioek pertsonen ekintzak orientatzen dituzte, aukeren artean gida eskainiz egoera eta helburu desiragarrietara orientatuz. Schwartz-ek proposatutako balioen tipologia pertsonen jarrerak mugiarazten dituzten motibazioetan eta interesetan egituratuta dago. Balioen artean osagarriak diren eta ez diren norabideak aurkitu daitezke, adibidez interes pertsonalak edo kolektiboak zerbitzatzen dituzten balioen artean (Schwartz, 2012). Osagarritasunak eta bateraezintasunak kontutan hartuz balioen arteko maila goreneko lau joera nabarmentzen ditu: auto-transzendentzia, norberaren promozioa, aldaketara irekitasuna eta kontserbazioa.

Nazioarteko Kooperatiba Aliantzak definitzen dituen 10 balio kooperatiboek (Martinez Charterina, 2016) Schwartz-eren unibertsaltasunarekin erlazionatu daitezke, gure kasuan Justizia Soziala -demokrazia, berdintasuna, ekitatea, elkartasuna, erantzukizun soziala eta bokazio soziala- eta Onginahia -elkar-laguntza, ko-erantzukizuna, zintzotasuna eta transparentzia- baloreekin. Era berean, Schwartz-en balioak modu adierazgarri batean korrelazionatuak daude CCPS eskalarekin -Cooperativeness and Competitiveness Personality Scale- (Xie et al, 2006). Lehiakortasuna eta kooperatibagintza modu ezberdin batean lotzen dira Schwartz-en balioekin. Modu zehatzago batean, oso kooperatiboak agertzen diren pertsonen auto-transzendentzia diren Unibertsaltasun eta Onginahi baloreak nabarmentzen dituzte (Su et al, 2013).

**Gizakiaren ikuspegi positiboa:** Autore askorentzat, konfiantza soziala "iritzi moral" bat da; zeinak gizabanakoa eramaten duen gizartearen gehiengoak konfiantza merezi duela pentsaraztera (Uslaner, 1999) eta gizakiaren ikuspegi positiboa adierazten duena. Gero eta gehiago, literatura bat dator hedatutako konfiantza sozialak ekonomian eta demokrazian emaitza onak sortzen eta faboratzen duela, hainbat autore ezberdinek horrela adierazten dutelarik (Fukuyama, 1995; Sztompka, 1996; Newton, 2001; Delhey & Newton, 2005). Konfiantza soziala ikuspegi ezberdinetatik ikertu eta neurtu izan da, kasu honetan, McGregor-en Y teorian oinarrituta *The Human Side of Enterprise* (1960) liburuan aurkeztua, konfiantza sozialaren kontzeptzioak ikuspegi positibotik, puntu hauek onartzen ditu (Kopelman, Prottas & Davis, 2008): a) pertsonak naturaz ez dira nagiak, b) pertsonak beraien kabuz gidatzeko eta kontrolatzeko gai dira eta c) pertsonak, antolakuntzen efikazia hobetzeko duten ideia eta iradokizun garrantzitsuak proposatzeko gai dira.

# BIGARREN ZATIA

## GALDERA-SORTAREN GARAPENA ETA JUSTIFIKAZIO ESTATISTIKOA

3. Fitxa teknikoa

4. Azalpena

4.1. Pertsona kooperatiboa

5. Aplikazio arauak

6. Zuzenketa eta puntuazio arauak

7. Justifikazio estatistikoa

7.1. Sarrera

7.2. Parte-hartzaileak

7.3. Fidagarritasuna

7.4. Baliotasuna

8. Interpretazio arauak

9. Baremazioa

10. Erreferentzia bibliografikoak

Eranskina I: Koophezi-L Galderasorta

## 3. FITXA TEKNIKOA

**Izena:**

KOOPHEZI-L: Pertsona Kooperatiboaren profila  
Langileetan neurtzeko eskala.

**Egileak:**

Oxel Azkarate-Iturbe, Aitor Aritzeta, Ion Lezeta, Jose Ramon Vitoria, Iban Gallettebeitia,  
Ane Sanchez eta Miren Zubizarreta.

**Data:**

2019ko Irailaren 20an

**Aplikazioa:**

Bakarka edo taldeka.

**Aplikazio adina:**

23-65 urte bitartean.

**Iraupena:**

10-15 minutu.

**Helburua:**

**Pertsona Kooperatiboaren profila neurtzea.**

**Baremazioa:**

Generoaren arabera.

## 4. AZALPENA

Pertsona Kooperatiboa –PK- neurtzen duen KOOPHEZI-L tresnak 30 item ditu eta bere baitan hartzen ditu 9 dimentsio.

Galdera-sorta betetzen duen subjektu baten PKren profila garatu daiteke populazioaren emaitza normatiboekin alderatuta. Labur eta ikuspegi orokor batetik, PK horrela defini daiteke:

**Pertsona Kooperatiboa** da *gizakia eta jendartea kontuan hartzen duten balio eta jarrera indibidualak eta komunitarioak dituen; burujabea, elkar-kidetzan diharduena eta ekintzaile soziala: elkertasunean eta berrikuntzan oinarritutako eraldaketa sozialaren alde pentsatzen duena eta egiten duena*

Aipaturikoa kontuan harturik, PK neurtzeko garatu diren dimentsioen deskribapen laburra eskaini, eta dimentsio bakoitzaren adibide item bat aurkeztuko dugu.

## 4.1. PERTSONA KOOPERATIBOA

**Autoefikazia Kognitiboa** dimentsioak norberaren gaitasun kognitiboaren konfiantza neurtzen du. Dimentsio hau Autoefikazia eta Beharrizan Kognitiboa azpi-dimentsioekin osatua dago:

Alde batetik **Autoefikazia** azpi-dimentsioak pertsona batek bere buruarekiko duen konfiantza maila aztertzen du. Alegia, zein neurriraino subjektu batek konfiantza daukan, dituen gaitasunak direla eta, gai izango den ezusteko gertaerak modu efikazean kudeatzeko. Hain zuzen ere PKren dimentsio honen adibide item bat hau da: “Konfiantza daukat laneko ustekabeko gertaerei eraginkortasunez aurre egiteko dauzkan gaitasunetan”.

Beste aldetik, **Beharrizan Kognitiboa** dimentsioak adierazten du inguruan dagoen informazioa modu aktiboan bilatzeko, antolatze eta egituratzeko, eta estimulu berriak bilatzeko beharra, alegia, konplexutasuneko erronkak dituzten atazak burutzeko barne-motibazioa bezala ulertzen da. PKren dimentsio honen adibide item bat hau da: “Gustatzen zait gogoeta eskatzen duen egoera bati aurre egiteko ardurak hartzea”.

**Moral Barneratuak** ikuspegi moral batetik, printzipio pertsonaletatik auto-bideratzen diren pertsonak, berdintasun, erantzukizun eta ondorioen aurre-ikuspenetik abiatzen direnak dira, ekintza baten ondorio afektibo positibo/negatiboak aurre-ikusteko gai direnak dira. PKren dimentsio honen adibide itema hau da: “Lanean zalantzarik badaukat nola jokatu behar dudan, neure barrura begiratzen saiatzen naiz, zuzenena zer den jakiteko”.

**Enpatia Kognitiboak** besteak zer pentsatzen eta sentitzen duen ulertzea eta antzematea inplikatzeko du eta horixe da dimentsio honek aztertzen duena. Hau horrela izanda, subjektuak, bere aurrean duen pertsonaren azalean jartzeko gaitasuna, hau da, kontu ezberdinak beste ikuspuntu batzuetatik kontsideratzeko duen erraztasuna neurtzea du helburu. PKren dimentsio honen adibide item bat hau da: “Lanean eztabaidatzen dudanean, saiatzen naiz ezer esan aurretik beste pertsonaren lekuan jartzen”.

**Helburuen Interdependentsiak** aztertzen duena hau da: langile batek bere lana burutzeko, ikasgelako egitasmo batean adibidez, zein puntutaraino onartzen duen bere taldekideen beharra duela. PKren dimentsio honen adibide item bat hau da: “Laneko jarduera bat egiten dudanean, ahal dudan guztietan jarduten dut nire inguruko pertsonekin lankidetzan nire helburuak betetzeko”.

**Komunikazio asertiboa** dimentsioak neurtzen du modu egokian kontraktotasuna, desadostasuna, kritikak egiteko eta jasotzeko, eskubideak defendatzeko eta orokorrean sentimendu negatiboak adierazteko gaitasuna. PKren dimentsio honen adibide item bat hau da: “Lanean hainbat esparrutan, lasaitasunez ematen dut iritzia, beste pertsonak ados egon ez arren”.

**Ekintzailetasun Sozialak** zera aztertzen du pertsona batek zein puntutaraino ematen dion garrantzia egitasmo berriak sortzeari edo ekimen sozial berriak hasteari, beti ere egitasmo horiek onura soziala badute. PKren dimentsio honen adibide item bat hau da: “Gustatzen zait gizartearentzat onuragarriak diren proiektu berriei ekitea”.

**Justizia Sozialak** balio bezala demokrazia, berdintasuna, ekitatea, elkartasuna, erantzukizun soziala edota bokazio soziala hartzen ditu bere baitan. PKren dimentsio hau neurtzen duen item adibide bat hauxe litzateke: “Uste dut bizitzan aukera berak izan behar genituzkeela denok”.

